

Irulitxa fanfarrea, 10 urte kaleak alaitzen

Irailaren 16 eta 17an Musikale ekimenaren baitan Ermuko Irulitxa Fanfarreak bere 10. urtebetetzea ospatu zuen. Taldeko gehienak proiektu honetan hasi zirenean ez zuten pentsatu ere egingo, 10. urteurrena horrela ospatuko zutenik.

Fanfarrearen hastapenak

Lagun kuadrila batek instrumentuak jotzen ikasi nahi zuela eta, solfeoa ikasteko Musika Eskolan eman zuen izena. Orduan euren asmoa Santixaetan pare bat abesti jotzea zen. Horrela hasi zuten 7 lagun haiek bere ibilbidea. Musika Eskolako gazteekin elkartuz eta, Silvia Izarra sustatzaile eta zuzendari moduan zutela, fanfarrea sortzeko ideia gorpuzten joan zen. Irailean hasi eta lehenengo saioa 1996ko inauterietan izan zen. Poliki-poliki fanfarrea sendotzen joan zen eta Musika Eskolaren baitan Irulitxa sortu zen, maiatzaren 8an horrela erregistratu zena.

Txarangak hasieratik auto finantzioazio propioa izan du eta gaur egun ere, horrela funtzionatzen du. Bi urte eskas pasatu zirenean, Musika Eskolak soinu-banda sustatu nahi zuen eta txarangari banda horretan parte hartzea proposatu zion. Hasierako taldeko gehienak ez zuten banda batean euren burua ikusten, bandak konpromiso maila handiegia eskatzen zuelako eta askoz serioagoa zelako. Horregatik hasierako fanfarrearen bultzatzaile gehienak bere kabuz jarraitzea erabaki zuten.

Bakarko ibilbidea

Ordutik aurrera, gauzak ez ziren errazak izan, Moises Guridik utzitako lokalean hasi ziren entseguekin baina ez zuten zuzendariarik. Egunkarian jarritako iragarki bati esker, fanfarrearako zuzendaria lortu zuten. Apurka-apurka eta lan handia eginez, hobetzen joan ziren. Gaur egun 3 zuzendari dituzte: Gorka Bilbao, Andoni Baidagán



eta Gorka García "Kaska". 14 urtetik 62 urte bitarteko 20 kidek osatzen dute taldea eta instrumentu ezberdinak jotzen dituzte: 4 tronboi, 4 tronpeta, klarnete bat, 5 saxo, kaja, txapak, helikoia, bombardinoa eta bonboa. Urtero 18 saio inguru egiten ditu fanfarreak, 5 Ermuan eta gainerakoak Ermutik kanpo. Saio horien bitartez urteko aurrekontua betetzen dute. 30 abestik osatzen dute egungo erreperorioa eta urtero bi abesti berri ateratzea da euren erronka. Asitean bi aldiz elkartzen dira

entseguak egiteko, astearte eta ostegunetan Miguel de Unamuno Gizarte Etxean 20:30etatik 22:00ak arte.

Jende berri bila

Fanfarrean jendeak parte hartzeko deialdia urtero egiten dute, interesatuta dagoenak eurekin harremanetan jartzea baino ez dauka. Argi utzi nahi dute Irulitxan solfeorik ez diotela inori irakasten, txaranga jo nahi duenak bere aldetik ikasi behar duela. Hori bai, lan egiteko eta batez ere ondo pasatzeko gogoia ezinbestekoak dira.

Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK

Geure Baserrian

Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO

ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k

Tfnoa. 943 17 05 84

Ermua

OPTICA

J. CASADO



Lenteak

Audifonoak

Graduatutako Antiajuak


Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL

Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3

☎ 17 05 63

ERMUA

(Bizkaia)

Hamburguesería

TITANIC



Kantabria 2

Tlf: 17 67 83